Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

IHOBE
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Sociedad Pública de Gestión Ambiental

Oarsoaldea
Udaltalde 21
Parte hartuz eraiki
Participa y transforma

2005 marzo martxoa
nº 1. alea

# Tokiko Agenda
# Agenda Local 21

Parte hartuz eraiki
Participa y transforma

Lezo Oiartzun Pasaia Errenteria

## 10 TÉCNICOS/AS DE AGENDA LOCAL 21

Para llevar a cabo el adecuado desarrollo del proceso de implantación de las cuatro Agendas Locales 21 de la comarca, el proyecto cuenta con un equipo humano de 10 técnicos/as en Agenda Local 21 que estarán trabajando durante un año en los ayuntamientos de Errenteria, Lezo, Oiartzun y Pasaia.

Estos/as diez Licenciados/as forman parte de un programa de empleo-formación subvencionado por el Gobierno Vasco por lo que, previamente a su contratación, recibieron la formación adecuada para el desarrollo de las funciones a realizar.



## OARSOALDEKO UDALTALDE 21EN LEHENENGO JARRAIPEN-BILERA

Oarsoaldeko Udaltalde 21 2004ko apirilean eratu zen eta honakook osatzen dute: Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako Udalek. Horiek guztiak Oarsoaldea S.A.k koordinatzen ditu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahiz IHOBEren (Ingurumena Jarduketarako Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoa) laguntza dute.

Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuaren barnean zenbait bilera, "jarraipen-bilera" deiturikoak, egitea aurrez ikusia dago. Bertan proiektuaren erakunde koordinatzaileak nahiz sustatzaileak izango dira. Ildo horri jarraiki, irailaren 27an Oarsoaldea S.A. Eskualdearen Garapenerako Agentziaren instalazioetan (Oiartzungo Enpresa Zentroan) lehenengo jarraipen-bilera izan zen eta bertan parte hartu zuten Oarsoaldea S.A.k, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta IHOBEk. Oarsoaldea S.A.k gainerako partaideei proiektuaren martxari buruzko txostena azaldu zien eta eskualdeko komunikazio-planaren zirriborroa aurkeztu zuen. Bai IHOBEk, bai Aldundiak gertaerei buruzko adostasuna adierazi zuten.



## OARSOALDEKO LAU UDALERRIEK TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ALDE KONPROMISOA BATERATZEN DUTE

Oarsoaldeko udalerriek, Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiak, 2004ko apirilaren 19an lankidetza-hitzarmena izenpetu zuten OARSOALDEKO UDALTALDE 21 lantaldea eratu eta garatzeko. Oarsoaldea S.A. Eskualdearen Garapenerako Agentziaren zuzendaritzapean arituko da eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta IHOBE Ingurumena Jarduketarako Sozietate Publikoaren bidez Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarekin koordinatuko da.

Taldearen helburua eskualdean Tokiko Agenda 21 sustatzea da. Horretarako, ezaugarri amankomunei eta elkar banaturiko arazoei erreparatuko zaie eta, gainera, esperientzien trukeak eskaintzen dituen abantailak aprobetxatu nahi dira.

Proiektuak ekonomi, gizarte- eta ingurumen-egoeraren artean oreka lortu nahi du; beraz, azken finean, hiritarren bizi-kalitatea hobetu nahi du.

Tokiko Agenda 21 prozesuak fase desberdinak ditu eta denetan guztion partaidetza oso garrantzitsua da, hiritarren ikuspuntu desberdinak ezagutu eta biltzeko aukera ematen baitu eta, hala, prozesu honetan barneraturik dagoen Tokiko Ekintza Planean sar daitezke.



Ildo horri jarraiki, jada urte batzuk badira (2000az gero) Oiartzungo udalerria iraunkortasunaren gaietan inplikatzen ari zela. Orain motor-modura dihardu eta gainerako udalerriak lagunduko ditu UDALTALDE 21 berrian bere esperientzia eskainiz.

OARSOALDEKO UDALTALDE 21en sinadura Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 dokumentuan barneratzen da eta helburu nagusi bat udalerrietan nahiz eskualdeetan Tokiko Agenda 21 programak sustatzea da. Azken xedea euskal udalerri guztiek ingurunearen hobekuntza etengabean aurrera egitea litzateke.

ERRENTERIAKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA
LEZO UNIBERTSITATEKO UDALA
Oarsoaldea
PASAIAKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE PASAIA
OIARTZUNGO UDALA – AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

Tokiko Agenda 21 Agenda Local 21
Parte hartuz eraiki
Participa y transforma

LEZO UNIBERTSITATEKO UDALA

Udaltalde 21

Lezo Oiartzun Pasaia Errenteria

## UDALBATZARRAK LEZOKO UDALA AALBORGEKO GUTUNERA ATXIKITZEA ERABAKI DU



Eskualdeko gainerako udalerriak bezala, Lezoko Udalak Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuari 2004ko uztailean ekin zion. Ildo horri jarraiki, lehenengo prestakuntza bilera antolatu zuen uztailaren 7an. Bilera egin ostean, uztailaren 15ean Tokiko Agenda 21i buruzko prestakuntza-saioa burutu zen eta teknikariek nahiz ordezkari politikoek parte hartu zuten. Hasierako ekintza horien ondoren, 2004ko urriaren 7an Udalak aurrerapausoa eman eta Aalborgeko gutuna izenpetu zuen. Hori Udalbatzarrak onartu eta, hala, iraunkortasunaren alde Lezoko Udalaren konpromiso politikoa berretsi zuen.

Orain Lezon ekonomia, gizartea eta ingurumenaren ikuspuntutik udalerriaren diagnostikoa amaitzen ari dira.

Diagnostikoa egiteko, batetik, Tokiko Agenda 21eko teknikariek datu kuantitatiboak bildu dituzte, eta bestetik, hiru mahai tekniko egin dira udaleko teknikari, politiko eta gizarte-eragileekin. Mahai horien helburua bikoitza izan da: datu kualitatiboagoak bildu dira eta landutako gai desberdinetan adituen pertzepzioa hauteman da. Horietan jende askok parte hartu zuen eta emaitzak udalerriaren diagnostikoan adieraziko dira.

Azkenik, abenduaren 16an Hiritarrek Parte Hartzeko lehenengo Eztabaida-gunea egin zen Gezala auditorioan. Ongietorria eta aurkezpena Kepa Garbizu Lezoko Alkateak eta Ondoan Aholkularitza, S. Coop. enpresak egin zuten. Horiek arduratu ziren hiritarrekin eztabaida dinamizatzeaz.

Eztabaida-gunean Mahai Teknikoko ondorio esanguratsuenak landu ziren. Ildo horri jarraiki, hiritarrekin ekonomia, gizartea eta ingurumenaren gaiei buruz hitz egiten jarraitzeko oinarriak izan ziren. Hala, bertaratutakoen pertzepzioekin diagnostikoari buruzko informazioa hedatu zen. Hala eta guztiz ere, eskualdeko gainerako udalerrietan bezala, otsailean eta martxoan hiritarrei egindako pertzepzio-galdeketek udalerriaren diagnostikoan bildutako informazio eta ekarpen guztiak osatuko dituzte.

## EL PLENO APRUEBA LA ADHESIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE LEZO A LA CARTA DE AALBORG

El Ayuntamiento de Lezo comenzó el proceso de implantación de la Agenda Local 21 el pasado mes de julio de 2004. Tuvo lugar una sesión formativa entorno a la Agenda Local 21 el pasado 15 de julio en la que participaron responsables técnicos y representantes políticos. El 7 de octubre de 2004, el Ayuntamiento firmo la Carta de Aalborg, ratificando, de esta manera, el compromiso político del Ayuntamiento de Lezo por la sostenibilidad.

En estos momentos, Lezo se encuentra en la fase final de realización del diagnóstico del municipio, desde el punto de vista económico, social y medioambiental.

Para la realización de este diagnóstico, además de la recogida de datos cuantitativos, se han realizado tres Mesas Técnicas, con técnicos/as del ayuntamiento, políticos/as y distintos agentes sociales. El objetivo de estas mesas ha sido la obtención de datos de tipo más cualitativo y la recogida de la percepción de quienes podríamos denominar expertos/as en las distintas materias trabajadas.

El 16 de diciembre tuvo lugar el primer Foro de Participación Ciudadana, en el auditorio Gezala. El acto de presentación y bienvenida estuvo protagonizado por el alcalde de Lezo, Kepa Garbizu, y la Consultora Ondoan, S. Coop., quienes se encargaron de dinamizar el debate.

Al foro se llevaron las conclusiones más representativas obtenidas en las Mesas Técnicas, no obstante, la encuesta de percepción ciudadana que se realizará entre los meses de febrero y marzo, vendrá a completar toda la información y aportaciones recogidas para el diagnóstico del municipio.



## SEMANA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE 2004

El pasado año 2004 la **Semana de la Movilidad Sostenible en Oiartzun** se celebró entre el 16 y el 22 de septiembre, en la cual, se realizaron las siguientes acciones:

1.- Del 16 al 22 de septiembre: el autobús con destino Oiartzun-Donostia fue gratuito.

2.- Se organizó por primera vez un concurso de ideas sobre: “¿Qué harías para que los caminos o vías de Oiartzun sean más seguros?” dirigido a los alumnos y alumnas de la ESO de las escuelas de Oiartzun.

3.- 17 de septiembre: Charla en la Casa de Cultura sobre el uso de la bicicleta, con la participación de las asociaciones KALAPIE, GIRIZI y LARTAUN.

4.- 18 de septiembre: Exhibición de Trialsin en la plaza del pueblo y organización de juegos para niños y niñas en la plaza Kontzejupe.

5.- 22 de septiembre: En el **Día sin mi Coche** se organizaron una marcha en bicicleta, una marcha a pie por la mañana y juegos para los/las más jóvenes en las dos escuelas de Oiartzun.

6.- Del 27 de septiembre al 4 de octubre: Exposición sobre Movilidad Sostenible en la Sala de Plenos realizada por los alumnos y alumnas de Tolosa junto con las fotografías sobre el **Día sin mi Coche 2004.**

Las actividades organizadas a lo largo de la **Semana de la Movilidad Sostenible** no buscan impedir el uso del vehículo privado pero sí impulsar el uso racional del mismo.

Udaltalde
Parte hartu eraiki
Participa y transforma

OIARTZUNGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

Tokiko Agenda 21
Agenda Local 21
Parte hartu eraiki
Participa y transforma

## MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA 2004



Mugikortasun Iraunkorraren Astea Europako herri eta hirietan antolatzen den ekimen bat da, egungo gizarteak leku batetik bestera mugitzeko darabiltzan moduek eragin zuzena baitute Garapen Iraunkorra lortzeko bidean. Mugikortasun Iraunkorra ingurumenarekin bateragarriagoak diren garraio moduak erabiltzean datza; garraio publikoa, bizikleta eta joan-etorri motzak egitean oinez ibiltzea hain zuzen ere, autoaren erabilpen arrazionalagoa bultzatuz. Aipatu behar da, garraioa dela gaur egun daukagun ingurumen-arazo larrienetakoa eta klima-aldaketa eragiten duten emisioen iturburu nagusia.

Mugikortasun Astearen baitan Autorik Gabeko Eguna ospatzen da irailaren 22an eta Oiartzunen ere hala izan da azken urteotan. Aurten Mugikortasun Iraunkorraren Astea irailaren 16tik 22ra ospatu zen Oiartzunen eta honako ekintzak eraman dira aurrera:

1. Irailak 16tik 22ra Oiartzundik Donostiara doan autobusa doakoa izan da eta aurreko urteko Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin alderatuz, erabiltzaileen portzentaia %10a igo da.

2. Herriko eskoletako DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketa bat antolatu da aurten berrikuntza bezala. Lehiaketaren leloa “Zer egingo zenuke Oiartzunek bide seguruagoak izan ditzan?” izan da eta borondatez parte hartu nahi zuten ikasleek beraien proposamenak idatziz plazaratu behar zituzten. Proposamen horien artean ideia on eta orijinalenak saritu ziren eta irabazleen izenak irailaren 22an ezagutarazi ziren, hau da, Autorik Gabeko Egunean.

3. Urriaren 17an Bizikletaren erabilpenari buruzko hitzaldia antolatu zen Oiartzungo Kultura Etxean, Donostiako KALAPIE eta Oiartzungo GIRIZI eta LARTAUN elkarteen parte hartzearekin.

4. Irailak 18an arratsaldez “Trialsin” erakusketa antolatu zen herriko plazan eta haur-jolasak Kontzejupe Plazan.

5. Autorik Gabeko Eguna irailaren 22an ospatu zen. Aurreko urteetan bezala, bizikleta eta oinezkoentzat martxa antolatu zen goizean zehar eta eskoletako ikasle gazteenentzat haur-jolasak antolatu ziren herriko bi eskoletan. Aldi berean, oinezko eta bizikletentzako martxak amaitutakoan, herriko plazan “zer egingo zenuke Oiartzunek bide seguruagoak izan ditzan?” lehiaketaren irabazleei sariak banatu zitzaizkien, guztiak bizikletarekin zerikusia zuten opariak zirelarik.

6. Irailaren 27tik urriaren 4ra Tolosako umeek Tolosako Mugikortasun Iraunkorraren Astean egin zuten erakusketa Oiartzungo Udaleko Pleno Aretoan erakusgai egon zen, Oiartzungo Autorik Gabeko Egunean egin ziren argazkiekin batera.

Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan antolatzen diren ekintzek ez dute ibilgailu pribatuaren erabilera eragotzi nahi baina horiek modu arduratsuagoan erabiltzea bilatzen dute. Azken finean, guztion esku dago herri eta hirietan bizi-kalitate hobea eta giro osasuntsuagoa izatea.





Tokiko Agenda
Agenda Local 21
Parte hartuz eraiki
Participa y transforma

OIARTZUNGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

Udaltalde 21
Parte hartuz eraiki
Participa y transforma



# OIARTZUNGO AGENDA 21EN AHOLKU KONTSEILUA

Oiartzungo Agenda 21eko Aholku Kontseilua herritarren parte hartzea bilatzen duen kontsulta organoa da. Bertan parte hartzen duten elkarte, erakunde nahiz banakako herritarrek tokiko garapen iraunkorra lortzeko bidean zeresan handia dutenez, Aholku Kontseiluak herritarren eta Oiartzungo Udalaren elkarlana bilatzen du, guztien artean Agenda 21eko konpromisoak aurrera eramateko asmoz.

El Consejo Asesor de la Agenda 21 de Oiartzun es un órgano consultivo que promueve la participación ciudadana y que pretende lograr el trabajo conjunto entre la ciudadanía y el Ayuntamiento de Oiartzun.

Con objeto de explicar el objetivo y las funciones del Consejo Asesor, el Ayuntamiento de Oiartzun convocó a la ciudadanía a un foro abierto el 9 de septiembre de 2004. El 4 de noviembre se aprobo el Reglamento del Consejo Asesor y se eligio a Don Juan Inazio Ansa como Presidente de dicho Consejo.

Los sectores que se encuentran representados en el Consejo Asesor de la Agenda 21 de Oiartzun son los siguientes: deporte, medio ambiente, asociaciones de vecinos, asociaciones de mujeres, juventud, euskara, economía, partidos políticos, educación y sindicatos.

Si desean tener más información sobre la Agenda 21 de Oiartzun y/o desean participar en el Consejo Asesor pueden llamar al teléfono **943. 490. 377** o pueden mandar un correo electrónico a la siguiente dirección: **agenda21oiartzun@yahoo.es**



Aholku Kontseilua sortzearen helburua eta partaidetzarako organo honen funtzioak azaltzeko asmoz, Udalak foro ireki batetara deitu zituen herritarrak 2004ko irailaren 9an. Ondoren, urriaren 7an eta urriaren 21ean ospatutako bileretan Aholku Kontseiluaren helburua, funtzioak, osaketa eta antolamendua erregulatzen duen Araudia eztabaidatu eta azkenik, azaroaren 4ko bileran onartua izan zen. Aldi berean, bilera hartan Aholku Kontseiluaren lehendakaria hautatu zen; Juan Inazio Ansa Jauna banakako herritarra hain zuzen ere. Azkenik, abenduaren 2an ospatu zen Aholku Kontseiluaren bileran Oiartzungo Agenda 21en Ekintza Plana eta lehentasunezko ekintzak eztabaidatu ziren eta bilera amaieran prentsaurreko bat eman zen.



Aholku Kontseiluaren osaketari dagokionez, lehendakariak, idazkaritzak, Oiartzungo 27 elkarte eta erakundeen ordezkariek eta 10 banakako herritarrek osatzen dute. Aipatu erakundeen artean Oiartzungo Udala aurkitzen da, bi ordezkarirekin; alkateordea eta Agenda 21eko Udal ordezkaria. Elkarteei dagokionez, ondorengo arloetako elkarteek osatzen dute Kontseilua: kirola, ingurumena, auzo elkarteak, emakumeak, gazteak, euskara, ekonomia, alderdi politikoak, hezkuntza eta sindikatuak. Hala ere, partaideen zerrenda ez dago itxita eta parte hartu nahi duten elkarte nahiz banakako herritarrek Agenda 21eko Idazkaritzari eskaria aurkezteko aukera dute.

Agenda 21en inguruan informazioa jaso nahi duenak edo/eta Aholku Kontseiluan parte hartu nahi duenak 943-490377 telefonora dei dezake (Aitor edo Edurnerengatik galdetuz) edo **agenda21oiartzun@yahoo.es** helbide elektronikora mezu bat bidal dezake.

# LORIARTZUN EGITASMOA, ABIAN OIARTZUNEN

Si hay un elemento que caracteriza a la localidad guipuzcoana de Oiartzun, es su estrecha relación con el medio natural que le rodea. Podríamos decir incluso que Oiartzun, se caracteriza por tener un ADN verde, de ahí su compromiso con el medio ambiente que le ha llevado a liderar numerosas iniciativas. Entre otras, el proyecto denominado LORIARTZUN cuya culminación va a ser la celebración de una Feria los días 4 y 5 de junio.

LORIARTZUN

Ingurugiroa babesteko ekimenen artean Oiartzungo udalak martxan jarri du Loriartzun proiektu berria. Honen baitan, eta beste zenbait ekitaldiren artean, aipatzekoa da ekainaren 4 eta 5ean egingo den azoka. Honek, gai nagusitzat loreak eta landareak izango ditu baina gure gizartean naturaren garrantzia ere azpimarratu nahi izango du.

Oiartzunen ingurugiroa sustatu eta zaintzeko proiektu berria beraz, abian dago. Oarsoaldean kokatzen den herri honek naturarekin duen erlazioa handia da eta ardura honek gai horren inguruan ekimen ezberdinak garatzea eragin du. Berriena, Loriartzun proiektua da eta natura eta eskualdeko turismoa bultzatzea du helburu. Lore eta landareen inguruan lan egingo da eta horregatik, abiapuntu bezala, azoka bat antolatzen ari dira ekainak 4 eta 5erako, "Munduko Ingurumenaren Egun"-arekin bat eginik. Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko publikoari zuzenduta dagoen lehenengo azoka izango da Loriartzun eta etorri handia izango duelakoan daude antolatzaileak, batez ere lore eta landareei zaien hurbiltasun eta atseginagatik.

Ekitaldi hau Oiartzungo Udalak eta Oarsoaldeako turismo bulegoak antolatuko dute herriko Bidegorrian. Kokapen honek badu bere garrantzi historikoa antzinako Arditurriko Mehategien trenbidearen ibilbidea jarraituz eraikia baitago eta gaur egun bailarako naturaz gozatzeko erabiltzen dute bertakoek.

# REGENERACIÓN DE UN HUMEDAL DE MONTAÑA EN MALBAZAR (AÑARBE)






El pasado mes de Junio, el Ayuntamiento de Errenteria junto con la organización ecologista WWF/Adena de Gipuzkoa, llevó a cabo la creación de un humedal de montaña en el collado de Malbazar con el fin de conservar la biodiversidad ligada a este tipo de hábitats naturales.

La idea nació debido al claro declive que están sufriendo los anfibios en el territorio. La escasez de charcas de montaña para la realización de las puestas hace que queden reflejadas sobre las mismas pistas forestales y pequeños charcos temporales de sus proximidades, pero el tránsito de vehículos y la evaporación de la ligera capa de agua que se forma en las lluvias, pone en serio peligro la supervivencia de especies en regresión.

Por ello, el emplazamiento elegido constituye un lugar potencialmente atractivo para los anfibios, y con el fin de dar solución a este problema, se creó una charca de características determinadas que permite conservar especies amenazadas de fauna y flora ligadas a este tipo de hábitats.

Además del fin de conservación, con este proyecto también se quiere concienciar a la ciudadanía de que el ecosistema de un humedal tiene valor en sí mismo y que es necesario promover conductas respetuosas con el medio ambiente. Por ello es importante reflejar la importancia del uso público y la educación ambiental en los espacios naturales protegidos. La actuación que se pretende, permite favorecer la configuración de puntos de interés naturalístico y paisajístico, acompañados de información para la interpretación mediante un panel, situado cerca de los senderos principales de tránsito.






# MENDI-HEZEGUNEAREN BIZIBERRITZEA MALBAZARREN (AÑARBE)

**Joan den ekainean, Errenteriako Udalak Gipuzkoako WWF/Adena erakunde ekologistarekin batera Malbazar muinoan mendi-hezegunea eratu zuen natur habitat horrekin zerikusia duen bioaniztasuna mantentzearren.**

**Lurraldean anfibioak kalte handiak pairatzen ari dira eta ideia hortik abiatuta jorratu zen. Arrautzak jartzeko mendi-puntu gutxi daude eta horien inguruan baso-pistak eta aldi baterako putzu txikiak egiten dira. Dena delakoa, ibilgailuak pasatzen direnean edo euriko ur-geruza arina lurruntzen denean, arrisku larrian jartzen da erregresioan dauden espezieen biziraupena.**

**Kontserbatzeko xedeaz gain, proiektu honen bitartez hiritarrak kontzientziatu nahi dira hezeguneen ekosistemari buruz, berez balioa baitu. Halaber, ingurumenarekiko errespetuzko jarrerak sustatu nahi dira. Ildo horri jarraiki, natur eta paisai interesa duten puntuak egituratu nahi dira eta horiekin batera interpretatzeko informazioa erantsi nahi da. Horretarako, panelak ibilbide nagusietatik hurbil jarri nahi dira.**

Tokiko Agenda
Agenda Local 21
Parte hartuz eraiki
Participa y transforma

ERRENTERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

Udaltalde 21
Parte hartuz eraiki
Participa y transforma



# ERRENTERIA TRABAJA PARA CONSEGUIR UN MUNICIPIO MÁS SOSTENIBLE



El 29 de octubre de 2004 el Ayuntamiento de Errenteria dio un nuevo paso en su proceso de implantación de la Agenda Local 21, firmando la Carta de Aalborg. Esta adhesión a la "Carta de las Ciudades Europeas hacia la Sostenibilidad", tiene su origen en la Primera Conferencia de Ciudades Sostenibles que tuvo lugar en Aalborg (Dinamarca) en 1994 y que concede el liderazgo de este proceso a las ciudades.

Sin embargo Errenteria había ya iniciado antes el camino puesto que en el año 2001 había realizado ya un diagnóstico previo que, en la actualidad, está en fase de revisión. No obstante, y con el objetivo de relanzar de nuevo el proceso, se desarrollaron una reunión preparatoria el 1 de julio y sendas acciones de presentación y formación entorno al proceso dirigidas a responsables técnicos y políticos que tuvieron lugar el pasado 20 de julio.

El diagnóstico se está revisando teniendo en cuenta aspectos económicos, sociales y medioambientales y, para esta revisión, además de la recogida de datos cuantitativos actualizados llevada a cabo por tres técnicas de Agenda Local 21, se han realizado el pasado mes de noviembre tres Mesas Técnicas, con técnicos/as del Ayuntamiento, políticos/as y distintos agentes sociales. El objetivo de estas mesas ha sido la obtención de datos de tipo más cualitativo y la recogida de la percepción de quienes podríamos denominar expertos/as en las distintas materias trabajadas. La participación en las mismas fue alta y los resultados obtenidos serán reflejados en la revisión del diagnóstico del municipio.

Por otro lado, el 15 de diciembre se celebró el primer Foro de Participación Ciudadana en el Centro Cultural Villa de Errenteria, con una importante participación de distintos colectivos del municipio. Al foro se llevaron algunas de las conclusiones más representativas obtenidas en las Mesas Técnicas, que sirvieron de base para dialogar con la ciudadanía sobre los distintos temas económicos, sociales y medioambientales. Resaltar el importante valor de las aportaciones que se realizaron.

Finalmente, durante los meses de febrero y marzo se esta llevando a cabo una encuesta de percepción ciudadana para conocer cuál es la valoración que ésta realiza entorno a diferentes cuestiones sociales, económicas y ambientales.





# ERRENTERIAK HIRITARREK PARTE HARTZEKO LEHENENGO EZTABAIDA-GUNE IREKIA EGIN ZUEN

Errenteriak 2004ko abenduaren 15ean Errenteriako Kultur Zentroan Hiritarrek Parte Hartzeko lehenengo Eztabaida-gunea antolatu zuen. Honakook inauguratu zuten: Miguel Buen Lacambra Alkateak, Jose Cruz Legorburu Ingurumen Zinegotziak eta Ondoan Aholkularitzak. Hiritarrekin eztabaida moderatzeaz arduratu ziren.

Jardunaldiaren helburua gai desberdinei buruz hiritarren pertzepzioa ezagutzea izan zen, hala nola, biztanleen eboluzioa, jarduera ekonomikoen eta enpleguaren egoera, bizi-kalitatea, heziketa, gizarte-zerbitzuak, ingurugiroa, hiri-planeamendua, garraioa eta hondakinen kudeaketa, besteak beste.

Mahai teknikoan ateratako ondorio esanguratsuenak eztabaida-gunean oinarri bezala erabili ziren ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren gai desberdinei buruz hitz egiteko.



# PASAIAK TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ALDE LANEAN JARDUTEKO HIRI-ZEREGINAREN GARRANTZIA ONARTU DU

Pasaiako Udalak 2004ko irailaren 28an ekin zion Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuari "Iraunkortasunerantz Europako Hirien Gutuna" izenpetu zuenean.

**Tokiko Agenda 21** ezagutarazteko xedez, 2004ko urriaren 6an udaleko teknikari eta alderdi politikoetako ordezkariei zuzenduriko barne-prestakuntza ekintzei ekin zieten.

Orain Pasaian ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik udalerriaren diagnostikoa egiten ari dira. Hori gauzatzeko, Tokiko Agenda 21eko hiru teknikarik datuak bildu dituzte eta hiru mahai tekniko antolatu dira udaleko teknikariekin, politikariekin eta gizarte-eragileekin.

Bestalde, abenduaren 14an Hiritarrek Parte Hartzeko Eztabaida Gunea burutu zen Trintxerpeko Alkateordetzan. Mahai teknikoan lortutako emaitzak eta informazioa eztabaida-gunearen oinarriak izan ziren.

Azkenik, otsailean eta martxoan zehar hiritarrei galdeketa egingo zaie Pasaiako udalerrian eragina duten zenbait gaien inguruan.



# PASAIA RECONOCE LA IMPORTANCIA DEL PAPEL DE LAS CIUDADES PARA TRABAJAR A NIVEL LOCAL POR LA SOSTENIBILIDAD

El Ayuntamiento de Pasaia dio comienzo al proceso de implantar los principios de desarrollo sostenible a nivel municipal y mejorar la calidad de vida de los y las pasaitarras desde el pasado 28 de septiembre de 2004 cuando en pleno municipal firma la "Carta de las Ciudades Europeas hacia la Sostenibilidad", más conocida como Carta de Aalborg.

A partir de esa fecha se inician dos acciones de formación internas dirigidas a los y las responsables técnicos y representantes de los grupos políticos del Ayuntamiento que tuvieron lugar el día 6 de octubre con el objetivo de dar a conocer qué es la Agenda Local 21 y la metodología del proceso.

En estos momentos, Pasaia se encuentra en la fase de realización del diagnóstico del municipio desde el punto de vista económico, social y medioambiental. Para la realización del diagnóstico, además de la recogida de datos cuantitativos actualizados llevada a cabo por tres técnicos/as de Agenda Local 21, se han realizado tres Mesas Técnicas, con técnicos/as del ayuntamiento, políticos/as y distintos agentes sociales. El objetivo de estas mesas ha sido la obtención de datos de tipo más cualitativo y la recogida de la percepción de quienes podríamos denominar expertos/as en las distintas materias trabajadas. Los resultados obtenidos en las mismas serán incluidos en el diagnóstico del municipio. Estas mesas giraron en torno a los siguientes epígrafes y se realizaron en las siguientes fechas:

Mesa Técnica sobre Análisis Socioeconómico:
23 de noviembre a las 9:00 horas.

Mesa Técnica sobre Medio Ambiente, Actividades Económicas y Licencias: 24 de noviembre a las 9:00 horas.

Mesa Técnica sobre Planeamiento, Movilidad y Medio Natural:
25 de noviembre a las 9:00 horas.

Por otro lado, con el objeto de tener una visión consensuada que permita elaborar un Plan de Acción basado en la sostenibilidad, se ha celebrado el pasado martes 14 de diciembre de 2004, el primer FORO DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA, en la Tenencia de Alcaldía de Trintxerpe con participación sobre todo del colectivo de asociaciones del municipio. Al foro se llevaron algunas de las conclusiones más representativas obtenidas en las Mesas Técnicas y la información recogida hasta el momento, que sirvieron de base para dialogar con la ciudadanía sobre los distintos temas económicos, sociales y medioambientales.

Finalmente, durante el mes de febrero se ha iniciado también una encuesta entre la ciudadanía, sobre distintas cuestiones que afectan al municipio de Pasaia y la valoración que tienen los ciudadanos y las ciudadanas sobre las mismas, que está sirviendo para completar el diagnóstico realizado.



Lezo Oiartzun Pasaia Errenteria

# PROCESO DE IMPLANTACIÓN DE LA AGENDA LOCAL 21 EN LA COMARCA DE OARSOALDEA

Para presentar el inicio del proceso de implantación de la **Agenda Local 21**, el reimpulso del mismo en Oiartzun y la campaña de comunicación que se está llevando a cabo en los cuatro municipios, el pasado 11 de Noviembre, los 4 alcaldes de los municipios de la comarca de Oarsoaldea ofrecieron una rueda de prensa. En este acto, las personas representantes municipales además de informar sobre la Agenda Local 21, presentaron los compromisos que ésta conlleva y los mecanismos de participación ciudadana previstos para este proceso.



Dicha presentación tuvo como primer protagonista al actual presidente de Oarsoaldea, Martín Beramendi quien explicó, que gracias al UDALTALDE 21 OARSOALDEA, la comarca "ha hecho una apuesta por el desarrollo sostenible, para lograr una transformación de una de las zonas más deprimidas de la Comunidad Autónoma Vasca, desde la bahía de Pasaia hasta Aiako Harria y convertir sus ciudades en más humanas". A su vez explicó la fase en que se encuentra cada municipio. Reconociendo la importancia de trabajar a nivel local, en septiembre y octubre de 2004 los Ayuntamientos de Errenteria, Lezo y Pasaia aprobaron en plenos municipales la adhesión a la "Carta de las Ciudades Europeas hacia la Sostenibilidad" (Carta de Aalborg). A partir de la firma de adhesión a esta carta, se da comienzo al proceso de implantación de la Agenda Local 21.

Kepa Garbizu, Alcalde de Lezo añadió que "tenemos que ser conscientes de que nuestro actual sistema de vida satisface nuestras necesidades pero no tiene en cuenta que vivimos en un planeta con recursos limitados. Por ello, es nuestra tarea promover y adoptar otras actitudes que no comprometan los recursos de las generaciones futuras, que dejen atrás una sociedad profundamente dividida por el subdesarrollo, la marginación y las desigualdades sociales". También explicó los momentos del proceso de Agenda Local 21 en los municipios de la comarca. En estos momentos nuestros municipios, excepto Oiartzun, se encuentran desarrollando y revisando la primera de las etapas, el Diagnóstico. Paralelamente, el Ayuntamiento de Oiartzun viene impulsando las actuaciones derivadas del Plan de Acción y promueve activamente el Consejo Asesor de la Agenda Local 21 de Oiartzun, que tiene su origen en el año 2000.

El Teniente Alcalde de Errenteria, Juan Carlos Merino, destacó la importancia que en la Agenda Local 21 tiene la participación ciudadana. "La Agenda Local 21, dijo, se caracteriza por ser un proceso en el que es imprescindible la participación ciudadana. La sostenibilidad es cosa de todas las personas y por eso es muy importante que para resolver los problemas se implique la ciudadanía en el ámbito individual y colectivo. Para participar es importante que las personas tomen parte en la definición y en la resolución de los problemas aportando su creatividad, puntos de vista y conocimientos a lo largo de todo el proceso".

Por último, Izaskun Gómez, alcaldesa de Pasaia, detalló la campaña de comunicación que se ha llevado a cabo en la comarca. La primera acción de comunicación es el envío de 32.000 cartas para dar a conocer el compromiso que ha adquirido cada ayuntamiento, acompañadas de un folleto explicativo de la Agenda Local 21 y los medios de participación.

Así, están previstas, entre otras acciones, nuevos envíos de folletos explicativos sobre los contenidos de los Diagnósticos y Planes de Acción, publicidad en autobuses, publicación de este boletín comarcal y la puesta marcha de un concurso fotográfico sobre Agenda Local 21.

## OARSOALDEAN TOKIKO AGENDA 21 EZARTZEKO PROZESUA

Joan den azaroaren 11n Oarsoaldeko udalerrietako 4 alkateek prentsaurrekoa eskaini zuten Tokiko Agenda 21 prozesuaren hasiera aurkezteko.

Oarsoaldeko egungo lehendakaria, Martin Beramendi jaunak, udalerri bakoitza zein fasetan dagoen azaldu zuen eta urrian Errenteria, Lezo eta Pasaiako Udalek Aalborgeko gutuna atxikitzea onartu zutela.

Kepa Garbizu Lezoko Alkateak, une honetan gure udalerriak, Oiartzun izan ezik, lehenengo etapa (diagnostikoa) garatu eta berrikuskatzen ari direla azaldu zuen eta Oiartzungo Udala Ekintza Planak adierazten dituen ekintzak eta Aholkularitza Kontseilua eraginkortasunez sustatzen ari dela.

Juan Carlos Merino Errenteriako Alkateordeak Tokiko Agenda 21ean hiritarrek parte hartzeak duen garrantzia azpimarratu zuen.

Azkenik, Izaskun Gomez Pasaiako Alkatesak zehatz-mehatz azaldu zuen eskualdean egin den komunikazio-kanpaina: 32.000 eskutitz, Tokiko Agenda 21i buruzko azalpen-liburuxka eta parte hartzeko bitartekoak.

**Errenteria:** Ayuntamiento; Barrio de Beraun, cruce entre las calles San Marcos y Aita Donosti.
**Lezo:** Ayuntamiento.
**Oiartzun:** En el Registro del Ayuntamiento.
**Pasaia:** ***Donibane:*** Junto a Bienestar Social.
***San Pedro:*** Tenencia de Alcaldía.
***Antxo:*** Tenencia de Alcaldía.
***Trintxerpe:*** Tenencia de Alcaldía.




**Errenteria:** Udaletxea; Beraun Auzoa: San Markos eta Aita Donosti kaleak gurutzatzen diren lekuan.
**Lezo:** Udaletxea.
**Oiartzun:** Udaletxeko Erregistroan.
**Pasaia:** ***Donibane:*** Gizarte Ongizatearen ondoan.
***San Pedro:*** Alkateordetza.
***Antxo:*** Alkateordetza.
***Trintxerpe:*** Alkateordetza.